



# ESPAINIAKO GGKE-EN KOORDINAKUNDEKO ERAKUNDE KIDEEN MANIFESTUA GARAPENERAKO LANKIDETZA KONPROMISOEN URRAKETA SALATZEKO

## PERTSONAK LEHENDABIZI GIZA GARAPENA ETA FINANTZA KRISIA

Munduko finantza krisiak baditu bere erantzule zehatz eta jakinak. Baina oraindik ez dira hartu krisi horren errudunei beren erantzukizuna ordainarazteko hartu beharko liratekeen neurriak. Ez dira hartu, ezta ere, oraingo garapen eredu honen ordeztasun sistema berdintzaileago, zuzenago, iraunkorrago eta gizatiarrago bat eraikitzeko hartu beharko liratekeen erabakiak, krisiaren errudun horiei inpunitate osoan lehengo lepotik jarraitzea eragotziko dietenak.

Bien bitartean, krisi hau biktimak sortzen ari da. Ez dira biktima sinbolikoak, baizik eta izen-abizenak dituztenak, **planetako populazio kalteberenetako 1.020 milioi pertsonatik gora, gehienak burtsetatik eta banketxe eta finantza erakunde handien egoitzetatik urrutiti dauden herrialde eta bazterretan bizi direnak**. Eta horiekin batera, gure kaleetako biktimak, gure arteko makalena.

Onartezina eta etikoki gaitzesgarria da finantza krisiari aurre egiteko neurriak Giza Garapenaren eta Milurteko Helburuen kontra zuzentzea. Hori onartezina da bai printzipioen eta bai koherentziaren izenean: justizia soziala, giza eskubideen defentsa eta makalenezko elkartasuna bezalako printzipioen izenean; eta gure gobernari eta politikariek sinatuak dituzten nazioarteko, Estatuko eta udalerriri mailako konpromiso guztiekiko koherentziaren izenean: Milurteko Aitorpena, Pobreziaren aurkako Estatuko Ituna eta autonomi erkidego nola udalerriri mailan sinatutako konpromiso guztien izenean, alegia. Hiritarren ordezkari bezala sinatu dituen konpromisoak jateak ez dio inolako sinesgarritasunik ematen inongo politikariri.

**Garapenerako Laguntza Ofiziala ez da oparotasun garaietarako luxu bat, ezta ere dirukutxa gainezka dagonerako limosna bat**. Hil ala biziko premia da milioika pertsonentzat, betebeharrak etiko eta morala, justiziaren deia erantzuten dion ekintza, sinatutako konpromiso eta obligazio bat botere publikoentzat. Atzean ez daude estatistikak eta portzentajeak... Atzean herriak daude, komunitateak; gizarteak, pertsonak, janariak, ur putzuak, eskolak, sendagaiak, osasun zentroak...

Espainiako gizarteak behin eta berriro adierazi du behartsuenekin hartua duen elkartasunezko konpromisoa, eta errespetatu beharra dago borondate argi hori. Oroz gain, gizarteak ezetz esan dio herrialde pobretuenentzako laguntzak murrizteko hartu den akordioari.

Gure ordezkari politikoei eskatzen diegu egin ditzatela bi gogoeta eta jabetu daitezela egoeraz. Har dezatela beren ekintzen ezaguera. Eta ekintza horien ondorioena. Ez daitezela ari merkatuen epe laburreko presioari erantzun beharrez. Onartu dezatela erantzukizun moral bat dutela, beren eskuetan dagoelako milaka lagunen etorkizuna. Milaka lagun horiek ezingo diete noski botorik eman hurrengo hauteskundeetan, baina milioika herritarrek bai izango dute horretarako aukera, eta bozemaile horiek printzipioak eta koherentzia eskatuko dizkiete.

Behean sinatzen dugun erakunde eta herritarrek dei egiten diegu administrazio eta erakunde publikoetako lider politiko eta gobernari, ondoko neurriak har ditzaten:

**1** Kriaren aurka hartzen dituzten neurriak bideratu daitezela batez ere kriaren arduradun eta eragileen aurka, tasa bat ezarriz finantza transakzioei eta neurri fiskalak ondasun gehien dutenei, eta aplikatuko dituzten murrizketak ez daitezela izan ez gastu sozialaren ez ekonomia produktiboaren kaltetan.

**2** Berretsi dezatela beren konpromisoa pobreziaren aurka borrokatzeko, Giza Garapena bultzatzeko eta Milurteko Helburuak lortzeko, eta eutsi diezaietela Garapenerako Laguntza Ofizialerako hartuak dituzten konpromisoari bai Estatu mailan eta bai autonomia erkidego nola udalari mailan --azken maila hauetan estuagoa eta hurbilagoa da gizarte zibilaren lotura garapenerako kooperazioarekin.

**3** Azkenik, Giza Garapenerako laguntzari murrizketak egiteko asmoa azaldu duten Estatu, erkidego zein udaletako gure gobernari eta politikoei eskatzen diegu ongi pentsa dezatela zer egitera doazen, ongi hausnar dezatela neurri horiek nolako ondorioak ekarriko dituzten, **eta zuzendu dezatela hartu duten bidea.**